

AMILDEGI AMAIERAN

Ane Arbillaga Etxarri, 17 urte

Pasai Donibane

Amaren hileta egunean hasi zen dena. Etxeko txokorik ezkutuean gorderik zituen traste guztiak nire eskuetara iritsi zirenean. Berandu da azalpenak eskatzeko eta gorroto xume batez begiratu diot nire aita zenaren argazkiari. Egia esan, haren antz handia dut. Gutxitan hitz egin zidan amak aitaz, Ameriketara etorri baino Euskal Herrian geratzea nahiago zuela esaten zidan beti, itsasoak beldur handia ematen baitzion, 1912. urtean aitona eta osaba galdu zituelako Bermeoko kaian galerna zakar batek arrantzan ustekabean harrapatu zituenean; baina nik ez dut hura inoiz sinistu, aita ez baitzen kostaldekoa.

Uniforme ederrez dago jantzita. Ez dira koloreak bereizten, zuri-beltzean baitira; beraz, zaharra behar du izan argazkiak. Traje militarrean estu-estu kabitzen da, benetan gizon sendoa da.

Harro egiten du irribarre. Baina begiek tristura zabaltzen dute, eta ez nolana hiko.

Hala ere, familiako baste argazki batean nire osaba, aitona-amona, birraitona-amonak eta izebak ageri diren horretan, ez dakit nor den nire aita, bi baitaude berdin-berdinak direnak. Ez dakit nor den nor, eta atzeko aldean ez du ez egunik, ez urterik, ezta izenik jartzen ere.

Nire euskaldun senitartekoak lehen aldiz nortzuk ziren ikusteak, emozio hutsez sorturik, begiak lausotu dizkit, erraietako nortasuna are euskaldunagoa bilakatuz. Bizitza osoa igaro dut euren berri jakin gabe, bizi zirela ere ez nekien eta. Amak beti kontaturiko gezurtxoekin asetzen nuen nire jakinmin hori, baina orain nor, noiz eta nolakoak izan ziren eta zergatik utzi zioten izateari jakin nahi dut. Atzera begiratzean bakarrik ulertzen delako etorkizuna eta ez alderantziz.

Argazkiekin batera, aitak amari idatziriko maitasunezko gutunak, hainbat bitxi, diru zahar, oiha-lezko ikurrina, eta oso hondaturik dirudien larruzko liburuxka bat ageri dira. Argazkiak, gehienbat, aitarenak dira, baina familia, amarekin eta lagunekin eginiko asko ere badira.

Amarekin hitz egin nahi nuke, testamentuan utziriko gauza hauek guztiak zergatik ematen dizkidan jakin nahi dudalako; zergatik orain eta ez hasieran. Seme batek beti duelako aitaren beharra edo alderantziz, eta hori ez zaio inoiz ukatu behar. Baina badirudi amak zergati batekin egin duela

hau, beldur, errespetu edo maitasunagatik agian; ez dakit, ez dut ulertzen.

Herriminez bizi izan da ama beti. Inoiz baztertu ez dudan euskaraz hitz egiten genion elkarri, euskal kanta eta abestiekin esnarazten ninduen, dantzak ere erakutsi zizkidan. Beti ere milaka kilometrotara zegoena hurbilago sentiarazteko asmoarekin egiten zuen, ni Euskal Herrian jaioa, baina Ameriketara hezia bainaiz. Etxe osoa dut hango argazkiz apaindua, Urdaibaiko estuarioaren freskotasunetik hasi eta Irati basoko udazken garaiko ostoen kolore berotan erre arte, Erriberako paisaia ederretatik pasa, eta Bilbo eta Donostiako portuen desberdintasunak agerian utzi arte.

Gauero kontatzen zizkidan amak bere aitonak garai batean sutondoan antzezten zizkien istorioak. Mendez mende, ahoz aho, garai batean jainkotzat hartzen zirenak, gaur egun kondairen pertsonaia sinpletzat hartzen ditugun horien esanahi eta balorazio guztiak oroitzen ditut gauero, hain direlako liluragarriak. Amets egitea beti gustatu izan zait, eta gehiago horrelako gauzekin. Bizitza bera amets hutsa iruditzen zaidalako, hiltzen garen hil egiten garela amestu eta esnatzerakoan beste pertsona baten izaeraren parte garela uste izan dudalako beti.

Emaztearekin hitz egin ondoren lortu dut hegaldirako txartela. Lanean oporrak hartuak ditudanez, ez dut zertan arduratu behar.

Beldurrak airean nago, amak beti debekatu izan didana egitera noalako, eta haur batek gaiztakeria

egitera doanean bezalaxe nabari dut nire burua hegazkina aireratu denean. Zerbait ahazten duzun sentipen hori daukat buruan, baina esku artean dudana da orain axola zaidan gauza bakarra. Dena berriro irakurtzea hobe izango dela uste dut:

“Kaixo laztana; zer moduz bidaia ? Ondo joan al da morroskoa ? Laster izango nauzue hor, badirudi gauzak asko lasaitu direla eta alde egiteko aukera izango dudala. Diru pixka bat aurreztu dut hara iritsi eta gauzak hobeto joan daitezten. Oraindik herria babesten ari gara. Atzo mendira igo eta ez zituzten mugimenduak nabaritu. Denak berdin jarraitzen du. Agur eta musu goxo bat biontzat.”

Koademo zaharkituriko orria kontu handiz pasatu dut, beste alde irakurtzeko gogo biziz:

“Etxean izan naiz gaur eta anaia hartu dutela jakin dut. Ez dut bere berri eta famili guztia ondo babesturik dagoen ustea adierazi dit Anttonek. Herria hutsik dago, erdiak alde egin du eta beste zatia kobazulo eta beste hainbat tokitan gorde da edo gordetzeko bidean da. Noiz bukatuko zain daude denak eta dirudienez hala izango da.”

Ahalegin handiak egin behar ditut aitak idatziriko ulertzeko. Lubakietan nola idatziko zuen pentsatzen jarri naiz. Egoera ez zen batere xamurra izango. Jada data gehiago dauzkat: anaia eta Antton. Datu guztiak gogoan hartzeko koaderno batean idazten ditut, gauzak errazago uler ditzadan:

“Bizkai aldetik hegazkinak igaro omen dira hegoalderantz. Hemen oraindik ez dugu ezer ikusi, baina goizaldean, mendian bi harrapatu dituzte, gure posizioak jakin nahian zebiltzan. Beraz, nik uste, hainbat mugimendu izan direla gaur gauean. Toki aldaketak ere badira. Urduritasuna nabari da geure artean. Prest dauzkagu gauzak, baina mugimendu txikienarekin izutzen gara. Urrunean ikusten ditugun inurritxoak noiz desagertuko zain gaude. Gauzak asko okertu dira.”

“Negu hotzeko gau luze honetan, hegazkinen motor hotsek oztopatu digute denei loa. Lehen tiro hotsak entzun ditugu mendiaren beste aldetik. Ez dakigu ezer oraindik. Mezulariak bidali ditugu baina ez dira oraindik ageri. Denbora luze den honetan beldurraren beldurrez, zergatia bilatu nahian gabillza denak. Besoan josirik daramaguna defendatzeagatik, horrela egon beharrak egiten du zentzudun. Edo zentzugabe. Hainbeste galdera daukat. Bakoitzak bere ausardiarekin egiten dio aurre beldurrari eta hotzari. Nirekin batera ondoan dut Abel. Kristaua ez den arren, gurutzeta eskuan duela egiten du lo. Horrek lagunduko diolakoan. Asko oroitzen naiz zutaz eta geure txikiaz, zuekin noiz elkartuko pentsatzen dihardut gau eta egun. Aurrean dudana eskuratzeko edozer egiteko prest nago, zuok ikustea delako nire helburua.”

“Altsasura iritsi direla diote batzuk. Besteak leku berean jarraitzen dutela oraindik. Hainbat hildako muga aldean eta besta hainbat atxilotu beste aldean. Asko okertu dira gauzak. Eraso prestatzen ari direla diote batzuk. Beldur gara denok. Unea iritsi dela ohartu gara.”

Hegazkinaren mugimendu indartsuek irakurketa oztopatu didate. Pixka bat atsedean hartzea erabaki

dut eta hegazkin handian zehar ibili naiz orain artekoa hausnartuz. Hegazkinean egoteko gogoa galdu dut une batez. Jaioterria, nire nortasuna, aitarena, amarena ... begien aurrean izateak sortuko didanaz pentsatzen jardun dut. Ikara, zirrara, poza... zer eta nola sentitzeak sorturiko hutsunean murgildu naiz eta irakurketarekin jarraitzea hobe izango dela erabaki ondoren, hartu dut eskuetan nire aita zenaren liburuxka. Aita hitza erabiltzeak ere sortarazten didanaz jarduteko gogoa ere sartu zait, baina beste une baterako uztea erabaki dut. Inoiz eduki ez duzunaz mintzatzea zailegia iruditzen zaidalako:

“Lortu dugu. Asko erori dira baina askok irabazi dugu. Altsasu geurea da berriro, baita Urbasa mendi osoa ere. Eguzkia nola irten eta sartzen den ikus dezakegu hemendik. Gurea dena ikus daiteke mendi gailurretik. Baina zergatik berreskuratu behar dugun ez dut oraindik ulertzen. Zergatik hil behar den bestea berea ez den zerbaitegatik borrokan ari bada. Eta zergatik erori behar diren geureak beraiena dena babesteagatik. Hainbeste dira erantzun gabeko galderak.”

“Ospakizun une hauetan sentitzen dut zeure falta, laztana. Laster naiz zuekin. Hau bukatu baino lehen. Lasai! Iritsiko naiz.”

“Gaua ez da batere alaia izan. Mendebaldetik omen datoz. Ipar aldetik ere aurrera egin dutela jakin dugu. Gauza okerrera doala dirudi. Haizea kontrako aldetik datorrenean soilik nabaritzen dugun bezalaxe nabaritzen da etsaia. Isil – isilik eta beti kontrako aldetik, espero ez duzun tokitik ageri da. Udaberriak lurrera eroriko den historik espero ez duenean bezala.

Lehen aldiz egin dugu tiro. Ilunabarreko argi urriaz babestu gara lubakietan gauaren epeltasun hotzean.

Lehenengo hildakoak geure taldeetan. Ez dugu inongo berririk. Esku artean joaten zaizkigu bizitzak. Gerrako 3. pertsona ikusezin horren agerpenak nor eraman dezakeen zozketatzen den bitartean, ageriko larritasun batek hartu du taldea. Inork ez du 3. pertsonaia horrekin solas egin nahi. Baina hala egiteko aukera guztiak xahutzen ditugu parez pare izan arte. Zentzua bilatu nahian gabilza batzuk, zentzua galdu nahian beste batzuk, eta zentzurik gabe azkenak. Iluntasun sakonean bidea aurkitu nahian.”

“Mendi gailurrean haizeak tinko astintzen duen ikurrina ikusteak sorturikoa defendatu nahian, ametsa lortzeko gogoak gorputzean, merezitakoa irabazteko aukerak itsuturik, ihintzari ere agertzeko gogoak joan zaion une berean agertu da eguzkia. Eta berarekin ekarri digu argia. Sarraskia begien aurrean, ikurrina bizkarrean, zergatia eta zentzua galdutako toki berean aurkitzen dut nire burua. Tokiz kanpo. Gau luzearen amaierako isiltasun lasaiean murgildurik.

‘Aurrera joateko beldurra duzunean, gudaren parte zarela ikustean, amets eroak baztertu ezin dituzun une horretan harrapatu gaituzte. Lagunen begirada galduak barnean josirik eramaten dituzunean, beraien odolak eskuetatik irrist egiten duenean, eta etsaiaren ahotsa belarri ondoan sentitzean ohartu naiz amaitu dela edo hau dena amaitzera doala. Geurea dena kentzera doazela. Inongo arrazoirik gabe. Ametsa amaitu da, hasi ere hasi zela uste izan genuen guztiontzat.”

“Bi aukera dauzkagula diote. Etsai bihurtu edo etsai izaten jarraitu. Bideak argi daude, baina norantzak, ordea, ez.”

“Gauero idazten dizuet. Ziega inprobisatu bilakatu duten Altsasuko baserri honetatik. Gauzak ez daude

batere lasai. Gero eta pilatuagoak gaude hemen eta ez dakigu zein izan daitekeen gure etorkizuna.”

Ezin izan dut irakurtzen jarraitu. Aitaren antzera, zergatia eskatzen diot neure buruari. Kontakizunak sorturiko korapilo sakona askatu nahian altxa egin naiz berriro ere, lasaitzeko asmoarekin. Gogorregia da inoiz aitaren berri jakin ez duen batentzat. Baina inoiz ezagutu ez dudana norbaitengatik sentitzen dudana da gehien samintzen nauena. Hainbatetan edukitako hutsunearen errua zuenarekiko sentitzen dudana, alegia. Noizbait gorrotatzera ere iritsi nintzena orain nola maite dudana ikusteak barkamen itxura hartuaz zeharkatzen du nire burua behin eta berriz. Banoa berriro antzina batean izan zirenen munduan murgiltzera. Horrelako zerbaiti mundu-hitzez izendatzea gogorra iruditzen bazait ere:

“Ezin sinetsirik nabil. Ikusitakoa behin eta berriz irudikatuz. Oraindik ere amets gaiztoa delakoan nabil. Noiz bukatuko zain. Goizean izan da dena. Gertakizunaren muina bagina bezala eraman gaituzte herrian zehar. Denak ilaran, arropa berdinez, gure txapelak gaiztoen iruditza hartu dituztelarik. Kateen pisua ez nuen nabaritzen ingurukoak sortarazten zidanarekin alderatuz. Etsaiak etsai bilakatu ditu edo etsai bilakatu gaitu. Herriko kaleetatik ibiltzea arrotz egin zaidan unean konturatu naiz. Herritar zirenak, hasiera batean gurekin zeudenak, beren eskuineko eskuak altxaturik zituztela sortutako pasabide inprobisatutik igarotakoan bota dizkigutenak entzunda, tristura sakon batek hartu

nau. Etsaiak herria hartu eta bertan eginiko desfilearen zatirik garrantzitsuentzat hartu gaituzte. Zirkoko lehoiak bagina bezala, norbere herrian arrotz sentituz, euskaldun zirenak etsai dituzula ikusiz, direnak eta ez direnak batera oihukatuz. Bidea burumakur egitera behartu dut nire burua, nor ikusiko nuen beldur bainintzen.

Plazara iristean, ordea, taulara igoarazi gaituztenean, orduan ikusi dut nahiago nuela besteen antzera amaitu. Bizia emateko prest zeudenak bere herria nola saltzen duten ikusiz igaro dut denbora. Baina gero, bakoitzaren izena garrasika esatera behartu gaituzte, banan-banan. Horrela, lagun zen Lenini txanda iritsi zaionean, sutan jarri da etsaien buruzagia. Izena entzutearekin batera hartu du pistola eta belaunikatzera behartu du. Isildu egin da herria orduan, begietako zapiak kendu nahian hasi dira, baina ez dira gai izan. Beranduegi. Tiro hotsak hautsi baitu isiltasuna. Urduritasun eta irribarre eginez begiratu digu Leninen hiltzaileak. Herriari mehatxu eginaz jarri gaitu denak paretan eta erokeria urduriaz, lurtean gehituz zihoan odolez idatzi du bertan Lenin izena, gorrotoak noraino eraman zezakeen herriari adieraziz edo asmoa behintzat jakinaraziz. Harrokeria sinplearen emaitza. Horrela, denek abestu dute aho batez etsaiaren abestia. Eskuineko eskuak egindako irudian itotzen nintzela nabaritu dut, desesperazio hutsak sorturiko ondoeza, tristuran, lotsan nola hondoratzen nintzen nabaritu dut. Esnatu egin nahi dut, zure alboan, txikiaren ondoan, esnatu nahi dut.”

“Askok egin dute atzera eta beraiek ere etsai bihurtu dira. Orain, lehen defendatzen zutena erasotzen dute, ulertzea kostatzen zaidan arrazoi batekin gainera. Ni ez nago herria saltzeko prest, azken unea iritsi arte arriskatzea erabaki dut. Barkatu, laztana. Noizbait izan-

go naiz zeuen ondoan hemendik atera eta zuokin elkartuko naizela, zin egiñen dizut. Lasai, iritsiko da unea, ekaitzaren ondoren baitator baretasuna”

Amak beti esaten zuen esaldia, baina alderantziz. Baretasunaren ostean dator ekaitza. Orain uler-tzen dut zergatik zioen hori. Hasieran bakarrik eza-gutu zuelako baretasuna eta inoiz ez ondoren. Une hartatik aurrerakoak ekaitzaren pareko izan zitue-lako agian:

“Urbasa mendian gaude. Gure lubaki eta babesleku guztietatik igaro gara, hildakoak jasotzeko. Etsaiaren barre algaren artean jaso behar izan ditugu eroritakoak. Arimak bertan utzi ditugularik, orain akanpaleku bate-an gaude biharkoa hobeagoa izango delako ustean. Agur, laztana, gau hotz honetan lo goxoa opa dizuet bioi.”

Hegazkinean emandako mokadutxoaren ondo-ren argiak itzali dituzte, berez gaua delako kanpoal-dean. Lehen nekez irakurtzen banuen, orain oke-rrago. Azken ahalegin batean, Euskal Herrian egin beharrekoak erreparatu ditut, Mikel historialariaren telefonoa gogoratu dut eta aitak idatziriko azken esaldiak irudikaturiko une horrekin lo hartu dut.

Jada argitu du egunak. Itsaso zabala zeharkatu dugu eta orain lur hartzea besterik ez zaigu falta. Urduri nago. Gero eta gertuagotik ikus daiteke etxean dudan Bilbo hiriko ingurua. Zirrarak sortu-riko ezinegona sartu zait gorputzean. Sakon hartu dut arnasa.

Errespetu handiz jaitsi ditut hegazkineko eskailerak. Azkenik etxean. Noizbait utzitakoa orain begien aurrean. Jakinminez josiriko mundu berri honetan ume txiki baten antzera nabil nora ezean nahita galdurik.

Donostiara bidean, taxilariari galdetu ondoren jakin dut ezkerretara dagoen mendia Anboto dela. Mari jainkosaren gordelekua. Txikitako ipuinen lekua parez pare. Begi-gosea asetuz ari naiz ezagutzen nire herria.

Aireportuan lorturiko mapa, une oro jarraitzen dut, gorputz guztia harturiko alaitasun batean murgilduz. Donostiara iritsi gara. Hotel parean utzi nau bidaia osoan zehar azalpenak eman dizkidan gizonak. Gogo biziz sartu naiz gelara eta beharrezkoa gainean dudala irten naiz kalera.

Kresal usaina lehen aldiz aurkitzean, portuko arrantza ontzi txikien balantza geldoak ikustean, Igeldoko dorre sendoa nabaritzean, amaz oroitu naiz. Eta hondartzak uraren joan-etorriak jasaten dituen toki berean nire pausoak atzean nola uzten ditudan ikustean, aita izan dut gogoan. Atzean utzirik gauza balitz bezala ikusten dut. Geuregana noiz itzuliko zain geraturiko une guztiak biltzen dituen sentipenen artean utzi dut hondartza eta zeharo nekaturik, Mikeli deitu diot. Poztu egin da nire berri izatean. Biharko hitzordua erabaki ondoren agurtu dut. Eta helburua lortu dudalakoan lo hartu dut.

Amets eroen artean ibili ondoren esnatu naiz. Kosta egin zait non nagoen ohartzea. Baina kokatu ditut ideiak beren lekuan eta gosaldu ondoren,

hartu beharreko guztia hartu eta hitzartutako tokira noa planoko marratxoak irudikatzen duen kalean barrena.

Bosteko sendo batez agurtu dugu elkar eta tabernako pintxo ospetsuek harriturik utzi naute. Hainbeste eta hartzeko hain erraz izateko aukerak gosea piztu dit eta Mikelek gomendaturikoa hartu dut. Tipo serioa dirudi, baina umore onekoa da. Sorbaldetara iristen zaizkion tximek oso irudi traketsa ematen diote; baina ez da dirudiena.

Lehendik esandako datuekin ikerketa txiki bat egin omen du eta amildegi baten argazkia erakutsi dit. Urbasa mendiko Balcón de Pilatos-eko amildegia, hain zuzen. Aitak idatzitakoa laburki kontatu diot eta bere ustea are indartsuagoa egin da. Garai haietan, etsaiak amildegia hartatik botatzen omen zituzten harrapatutakoak. Izozturik utzi dit barrua eta erabat itzali dit nuen ilusioa. Gogor eutsi ditut negar malkoak eta adi entzun dut Mikelek zioena behin eta berriz, aita amildegitik behera zihoan irudia irudikatzen nuela.

Emandako hainbat azalpenekin batera, hoteleko zenbakia eman diot, edozertarako behar banau, eta berak mugikorrekota eman dit. Aurrekoa baino bosteko ahulxeago batekin esan diogu agur elkarri eta tristura handi batekin bide desberdina hartu dugu.

Aitaren argazkia begiratzean, amets eroak baztertzean, egia gordinaz jabetzean ohartu naiz amaren sufrimenduaz. Baita aitarenaz ere. Amaieraren zergatia bilatu nahirik ibiliko zen ama eta aita,

berriz, hasi beharraren zergatia bilatzen. Zin egini-koa bete ez zuen haren ondoan egon nahi genuen. Orain, aldiz, non dagoen ere ez dakit. Nonbait, lur azpian, edo nork daki, agian ezta hori ere. Ikusitakoa ikusita, bertatik sentitu nahi dut aitak jasandakoa. Nire begien aurrean ikusi nahi dut nire etxea edo etxe izan zena; zein den nire herria, familia, azken finean nire nortasuna.

Familiaz pentsatzen jartzean, nortzuk diren ere ez dakit. Irudiz bakarrik osaturikoak direla eta izan zirela dakit. Zeren izan ez zirenik ez da sinetsi behar eta ez direnik ere ez da esan behar.

Pare bat pintxo janda, alde zaharretik bueltaka ibili naiz. Bi aldiz ikusitako kale berdinak beste behin ikustean, alde batera utzi dut plano eta aita burutik kendu ezinik nabilela, askatasun gehiagorekin nabil alde batetik bestera. Arrotz zaidan tokia nire herria dela pentsatzeak are bereziagoa egiten du paseotxoan.

Hotelean afaltzen ari naizela Mikelen deia dudala jakinarazi didate. Biharko geratu gara eta berri onak eta txarrak omen ditu. Dena den, berri hutsak dira.

Oraindik indar gutxi badu ere, argi dago eguzkia lagun izango dugula egun osoan zehar. Gosaria oraindik bueltaka dudala jaitsi naiz hoteleko sarrerara eta bertan da Mikel, bere autoa ondoan duela.

Donostiatik aldenduz gindoazen bitartean azaldu dit plana. Urbasara goaz. Lehenik, Altsasura eta gero aitak ibilitako txokoak miatzera.

Behelainoak mendi tarte, ibar eta txoko guztiak bete ditu, mendi tontorrek estaltzeko ahaleaginean geratu delarik. Laster iritsi gara Altsasura. Autoan itxoin dut nik eta Mikel berehala bueltatu da udaltxean izan eta gero.

Liburutegian sartu gara eta bertako neskak eraman gaituen gela hotza da benetan. Erraz suma daiteke orri zaharkituen usaina. Mikel etxean bezala dabil denborak horiztatutako paperen artean. Azkenik bilatu du nahi zuena. Aitaren datuak bilzen dituen papera da. Garai batean agiri bat izango zen seguruenik. Ondoren argazkian ageri den anaiarena atera du eta, aitona, amona, osaba izebenak... eskuartean dituenean fotokopia bana atera du. Isilik jarraitu ditut bere ekintzak, nire hitzen batek bere lana oztopatuko zuen ustea nuelako.

Bertan egin beharrekoak eginda, gogo biziz eraman nau jada herritik aldentzen zen paisaia batera. Autoa geratzean atera gara bertatik. Poliki-poliki, oraindik behelainoak harturik duen mendipean, agertzen hasi da, baserri bat. Oraindik ere lau aldeak dituen baserri abandonatu bat. Beldurrezko istorioetan protagonisten gordeleku izaten den horietakoa. Zeharo zaharkitua, denborak eramana, etorkizunak janda, oraindik ere zutik dirauen harrizko arima. Nire etxea izan zena.

Kontu handiz zeharkatu dugu beti erortzear dagoen atea. Teilatu itxura hartzen duen zatitik kanpo jarri gara. Noizbait bertan jaio nintzela pentsatze hutsak hasierako une haiek nolakoak

izango ziren irudikatzeran eraman nau. Noiz, nola, zergatik... hainbat galderaren isiltasunean murgildurik, zer esan ez dakidan unean utzi dugu nire sorlekua. Bizitzaren joan-etorriak gordetzen dituen harri piloa utzi eta mendian gora joan gara. Oraindik sinetsi ezinean nabilela, mendian marrazturik diruditen eta hain itxiak diren bihurguneak zeharkatzen ditugun bitartean irakurri ditut nire familiarrekoan datu eta dokumentuak. Osabarenarekin ari nintzela iritsi gara helmugara.

Errespetu handiz hurbildu naiz amildegi ertzera. Aita behean ikusiko banu bezala. Unea irudikatzen saiatu naiz. Alde batetik bestera lasaitasun eta nagusitasun osoz saiak amildegia nola zeharkatzen duen ikusiz geratu naiz une batez. Orain artekoa sakon hausnartu dut, saia nire ikusmenetik desagertzen zen bitartean. Denbora luzez han egon ondoren, sakan aldera jaitsi gara bazkaltzeko asmoz.

Jatetxeko mahaian eserita ginela, Mikelek dei bat jaso du. 5 minutu pasatxo igaro ditu telefonoz hizketan. Amaitutakoan, dena azaldu dit. Badirudi, aitaren anaia oraindik bizirik dela. Bikia behar du izan, ez baita bestelako mutilik ageri argazkian. Zaharren egoitza batean dago. Urteak daramatza han sarturik eta gaur lorturiko dokumentuek ziurtatu egin dute anaia dela, nire osaba alegia. Mikelek ea bisita egitera joan nahi dudanez esan dit. Beldurra eta gogo handia nahastu zaizkit lehen platerarekin batera. Ez dakit zer egin. Nor naizen ere ez du jakingo eta alferrikakoa izango da. Edo

agian ez. Arriskatzeak amildegi ertzean uzten nau. Aitarekin batera. Egingo dut, amildegi bukaeran zer dagoen jakin nahi dudalako eta saiatzeak ez didalako ezer kenduko.

Usain berezia dute asiloek. Atzean utziriko une ahaztuez betetzen da giroa. Denborak zaharkituri-ko izaerak ikusten dira. Beren bakardade hutsean galtzen diren arimak pilatzen dira toki hauetan. Garai batean izandakoa beraiek ere ahaztu dutela dirudi. Toki tristeegia nire ustez.

Ziurrenik, egoitza honetako pertsona gazteenak eraman gaitu osabarengana. Eguzki argiaren epeltasunean nola babesten den ikus daiteke urrutian. Ez omen du hitz egiten, eta ez du aparteko osasun arazorik. Urte asko daramatza hemen sarturik eta inoiz ez omen du inoren bisitarik jaso. Askorekin gertatzen den bezala. Emaitzaren bat jasotzeko zortea opa digu eta alde egin du. Mikelek ere gauza bera egin du. Bakarrik utzi nau bere gauza ez dela esanez.

Pausoz pauso oreka bilatuz, bidea eginez, amaieran dagoenari beldur pitin batez begiratuz iritsi naiz bere ondora. Zimurrak, jadanik zein bide jarraitu ez dakitela, pilatzen zaizkio aurpegian. Noizbehinka begiak ixten ditu, aitaren tristura bera daramaten begiak dirudite. Garai batean eginiko lana irudikatzen duten eskuak belaun gainean jarririk. Txapela alde batera jarriz. Aita dirudi benetan. Ez dut hitzik aurkitzen eta bere anaiaren argazkia utzi diot eskuen artean. Ez du begirada zuen lekutik mugitu eta familiako argazkia utzi

diot. Begiak poliki mugitu ditu eta zeharo zaharkiturik dituen besoekin aitaren argazkia hartu du eskuetan. Isiltasun mingarri bat nabari da airean. Negar malko bat argazkian. Begirada sakona osaba eta bion artean. Nire izena esan du lehenik, nik esan gabe, eta gero aitarena. Zimurren artean pila-turiko negar malkoak eroriz doaz. Hurbiltzeko keinua egin dit, eta eskua hartu diot, lasaitasuna eman nahian. Triste baino tristeago uzten zaituen begirada du. Xurxuloan, hitz bat errepikatzen du behin eta berriz. Hasieran ez diot ongi ulertu, baina barkatu dioela jakin dut geroxeago. Ez ditu begiak argazkitik kentzen, anaiarekin hizketan arituko balitz bezala. Bakarrik uztea hobe izango delakoan, altxa egin naiz, baina ezetz esan dit. Deseroso sentitzen hasi naiz hizketan hasi denean. Esaldi bat errepikatzen du oraingoan, bere antzinako oroimenetan galdurik dagoela dirudi. Erabat damaturik dio. "Neuk bota nuen, neure burua saldu nuen. Barkatu." Ezin izan diot eutsi. Gorroto, samintasun, tristura, sentimenduen itsasoko urez eginiko negar malkoa isuri zait. Berak bota zuen aita amildegitik behera. Bere burua saldu zuen, herria saldu zuen. Zer esan ez dakidala, argiago hitz egiten hasi da eta gertaturikoa zehatz-mehatz azaldu dit. Noizbehinka nekeak hitza eteten zion. Behartu egin zuten. Herria eta norberaren arteko aukeraketa egin beharreko ordua iristean ez zuen hura espero. Herriarekiko maitasunak noraino itsutu zaitzakeen azaltzen saiatu zait. Berak egin ez zuena alegia. Baina ez dakit egin behar zuenik ere. Anaia hil zuen, etsai bilakatu zen,

berak zioen bezala, bere burua saldu zuen. Amildegia ertzean, etsaia atzean zuela, etsaitzat hartu behar zuena anaia zuela, bere burua tartean izanik anaia-
ren azken hitz hotzak errepikatuz amaitu du:

“horrela ez mutiko, horrela ez.”

Bera ere izan zen Ameriketara, berak eman zion aitarien berri amari. Berak eraman zizkion berarenganaino eraman dizkidan koadernoak. Amak ez zuen onartu eta berehala itzuli zen saldutako herrira.

Ez zen bakarra izan. Herri osoak etsai nola bilakatzen ziren ikusi zituen, hurrera jarraitu ahal izateko.

Horrela egin ez zutenak, erabat ahaztu ditu edo ahaztuko ditu historiak eta herriak berak denbora aurrera doan heinean. Gudari izandakoak, herri-gatik bizia eman zutenak, lurpean nonbait galdu-rik dauden milaka arimak nola ahazten diren kezkatu beharko gintuzke gehiago eta ez bestek. Haiak noizbait izan zirelako garelako gu gaur egun.

Azken aldiz itxi ditu begiak osabak. Bizitza osoan gainean eramandako harria lurrean utzi balu bezala. Irribarre triste batez agurtu nau. Ni neuk ere irribarre egin diot eta aurpegian uzten duen alaitasun lasaigarriak hunkiturik, bere eskuko indarra nola ahultzen den nabaritzen dut. Badoa amildegia amaierara. Beste bat. Historiak eta geure memoriak ahaztuko duen beste bat, betiko, badoa.